



<p>EUSKARA AZTERKETA EREDUA</p> <p>EAEko HEOak</p>	<p>MODELO DE EXAMEN DE EUSKERA</p> <p>EEOOII DE LA CAPV</p>
<p>A2 MAILA</p>	<p>NIVEL A2</p>
<p>1. DOKUMENTUA: ARIKETAK</p>	<p>DOCUMENTO 1: TAREAS</p>

GARRANTZITSUA: Informazio gehiago daukazu
[Proben deskribapenean](#)

IMPORTANTE: Para más información, consultar la
[Descripción de las pruebas](#)

IRAKURRIAREN ULERMENA (20 puntu)

1. ARIKETA: 6 puntu

- *Julia Berger gazte alemaniarra Donostian hasi zen euskara ikasten. Hemen duzu egin dioten elkarrizketa.*
- **Elkarrizketako galderak (A-I) eta erantzunak (1-6) lotu behar dituzu.**
- *Bi galdera ez dituzu erabili behar.*
- *0 erantzuna adibidea da.*

JULIA BERGER

GALDERAK:

- A. Alemanian zaude orain. Zer egiten duzu euskaraz aritzeko?
- B. Baduzu Euskal Herrira itzultzeko asmorik?
- C. Euskara ikastean, zer izan da zuretzat errazena?
- D. Klasetik kanpo erabiltzen zenuen euskara?
- E. Zaila egin al zaizu euskara ikastea?
- F. Zer dela eta erabaki zenuen euskara ikastea?
- G. Zer kostatu zaizu gehien euskara ikastean?
- H. Zergatik aukeratu zenuen Donostia?
- I. ~~Zertara joan zinen Donostiara?~~

ERANTZUNAK:

0. Irakasle izateko ikasten ari naiz eta Eusko Jaurlaritzako programa baten bidez Donostian aleman-irakasle laguntzaile izateko aukera izan nuen 2010-2011 ikasturtean Donostiako Hizkuntza Eskola Ofizialean.

1. Oporretan han izan nintzen gurasoekin eta asko gustatu zitzaidan. Espainiara joan behar nuen atzerriko hizkuntza irakasle laguntzaileen programaren barruan eta argi neukan Euskal Herrira joango nintzela, Donostiara hain zuzen.
2. Hizkuntzak gustatzen zaizkit (alemanez, ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz, latinez eta, orain, pixka bat euskaraz hitz egiten dut). Euskal Herrian oporretan izan nintzenean gogoan dut amari esan niola: "Ama, euskara ikasi nahi dut!". Asko interesatzen zitzaidan, ezertxo ere ulertzen ez nuelako. Gainera, euskarak oso soinu dibertigarria du alemaniarrontzat.
3. Gramatika. Harrigarria, ezta? Hizkuntza asko badakizkizu, azkenean, ez da oso zaila egiten. Gainera, euskarazko kasu-markak alemanez ere baditugu eta partitiboa frantsesean ere badago. Beraz...
4. Ez, ez zait asko kostatu. Hizkuntza batzuk dakizkit eta horregatik ez dut arazo handirik izan. Klaseetara joaten nintzen bakarrik, ez nituen etxeko lanak ere egiten... kar, kar!
5. Bai, pixka bat... lagunekin saiatzen nintzen hitz egiten eta kalean edo tabernetan topo egiten nuen jendearekin. Gau batean Bilboko mutil batek esan zidan: "Arraioa! Euskaraz nik baino hobeto hitz egiten duen alemana! Ezin dut sinetsi, zu ezin zaitezke alemana izan!".
6. Facebook bidez Euskal Herriko lagunekin hitz egiten dut. Horretaz gain, gramatika liburu bat erosi dut nire kabuz ikasten jarraitzeko. Itzultzeko gogo handia dut berriro euskaraz egiteko!

Zuzeu, 2011-08-29 (laburtuta eta moldatuta)

Erantzunak	0	1	2	3	4	5	6
Galderak	I						

2. ARIKETA: 7 puntu

- Lau euskal dantzariri buruzko informazioa irakurriko duzu.
- Irakurritakoaren arabera, **lotu esaldiak (1-7) dantzariekin (A-D)**.
- 0 adibidea da.

EUSKAL DANTZARIAK

A	<p>PIRMIN ALDABALDE TREKU</p> <ul style="list-style-type: none">• 1930ean Zarautzen jaio zen.• Gerra Zibilean Euskal Herritik ihes egin behar izan zuen eta Ingalaterrara joan zen. Bertan, 14 urterekin balleta ikasten hasi zen.• Welss Ballet-ean dantzari nagusia izan zen 1948tik 1961era.• Lesio baten ondoren, dantzari karrera amaitu behar izan zuen.• Ondoren, Portugalera joan zen eta Porton dantza eskola bat zabaldu zuen. <p>(www.wikipedia.org, egokitua)</p>	B	<p>PATXI BEITIA</p> <ul style="list-style-type: none">• 1925ean Eibarren jaio zen.• Txikitan dantzatzea asko gustatzen zitzaion eta sei urterekin hasi zen dantzan Eibarko Batzokian.• Gerra ondoren dantzari ibili zen. Aureskua bikain dantzatzen zuen eta txapelketa batzuetan parte hartu zuen.• <i>Kezka</i> dantza taldeko zuzendaria izan zen.• 1965ean ezkondu eta Bermeora bizitzera joan zen. Bertan, <i>Alkartasuna</i> dantza taldea sortu zuen. <p>(www.wikipedia.org, egokitua)</p>
C	<p>LUCIA LAKARRA</p> <ul style="list-style-type: none">• 1975ean Zumaian jaio zen.• Bederatzi urterekin dantzan hasi zen. Victor Ullaterekin ikasi zuen Madrilen eta 1994an Marseillako Ballet Nazionalean sartu zen.• Geroago, San Frantziskoko ballet konpainiara joan zen.• 2002tik Municheko ballet konpainiako dantzari nagusia da.• Bere jaioterriko urrezko domina jaso zuen 2007an eta 2010ean hamarkadako dantzari onenaren saria eman zioten Moskun. <p>(www.wikipedia.org, egokitua)</p>	D	<p>JUAN ANTONIO URBELTZ</p> <ul style="list-style-type: none">• 1940an Iruñean jaio zen.• 1958an <i>Goizaldi</i> dantza taldean parte hartu zuen eta 1965ean <i>Argia</i> taldera pasatu zen.• Folklorista eta kulturgizona da, baita hizlari eta publizista ere.• <i>Oi Baldorba!</i> abesti ezagunaren letra sortu zuen.• 1985ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari izendatu zuten. <i>Dantzariak</i> eta <i>Deia</i> argitalpenetako lankide izan zen eta <i>Dantzak</i> izeneko idazlana egin zuen. <p>(www.wikipedia.org, egokitua)</p>

		A	B	C	D
0.	Dantzari honek Victor Ullaterekin ikasi zuen.			X	
1.	Gauza asko egiten ditu: folklorea ikertu, hitzaldiak eman...				
2.	Bere herrian hasi zen dantza egiten.				
3.	Dantza utzi ondoren eskola bat zabaldu zuen.				
4.	Dantzari buruz idatzi izan du.				
5.	Dantzaria izan zen, baita dantza-zuzendaria ere.				
6.	Txikitan gerraren ondorioz, alde egin behar izan zuen.				
7.	Zumaiako urrezko domina eman zioten.				

0	1	2	3	4	5	6	7
C							

3. ARIKETA: 7 puntu

- “Orain ez dugu egunkaria irakurriz ikasten” izeneko testua duzu hemen.
- **Osa ezazu testua erantzun egokiak aukeratuz (a, b ala c).**
- 0 adibidea da.

“ORAIN EZ DUGU EGUNKARIA IRAKURRIZ IKASTEN”

Egunkariak gero eta orri gutxiago ekartzen dituzte eta kioskoetan gero eta argitalpen gutxiago daude. Jose Mari Zalduak denbora gutxi darama Donostiako Mari liburu-dendaren jabe; ____ (0) ____, egunkari gutxiago saltzen direla nabaritu du.

Zalduak konfirmatu digu salmenta ____ (1) ____ egin dela hamabi hilabeteotan. Dendariak gaineratu du bezero gehienak zaharrak direla, ____ (2) ____ jende askok egunkariak eskelak irakurtzeko erosten dituelako.

Futbolak, bestalde, igotzen du salmenta: egunkari gehiago saltzen dituzte partida ondoko egunetan. Eta etxeko taldeak irabazi badu, gehiago. Hala ere, futbola ____ (3) ____ egunkaria erosteko arrazoi bakarra; gertakari bereziek handitzen dute saltzen diren egunkarien kopurua. “Adibidez, otsaileko eguraldi txarrak irudi ikusgarriak utzi zituen, eta horregatik egunkari asko saldu ziren”.

Pertsona askorentzat, ostatuak izaten dira egunkariak irakurtzeko toki ____ (4) ____ . Peio Ostolaza tabernariaren ostatura jende asko joaten da egunero kafea hartu eta egunkaria irakurtzera. Baina hori ez da edozein ____ (5) ____ gertatzen. Ostalariak dioenez, jende gehienak egunkaria gosaria edo hamaiketakoarekin batera irakurri nahi du.

Tabernetan egunkaria irakurtzen dutenek hainbat arrazoi izaten dute bata edo bestea aukeratzeko. Tabernari honek hiruzpalau egunkari edukitzen ditu tabernan eta uste du bakoitzak berea ____ (6) ____ . Pertsona batzuek euskarazkoak irakurtzen dituzte; beste batzuek, berriz, gaztelaniazkoak. Hizkuntzaren eta gustuaren arabera aukeratzeko dute egunkaria.

Pertsonen ____ (7) ____ ere garrantzia dauka. Ostolazaren ustez, kanpotarrek egunkaria irakurtzeko ohitura handiagoa daukate: “Afrikako iparraldeko pertsonak denbora asko ematen dute egunkaria irakurtzen; nik esango nuke osorik irakurtzen dutela”.

HABE aldizkari digitala, 2014-04-09 (laburtua eta moldatua)

0. a) gainera b) hala ere c) horregatik	1. a) desagertu b) igo c) jaitsi	2. a) adineko b) gazte c) kaleko	3. a) bada b) ez da c) izan daiteke
4. a) aproposenak b) desegokienak c) zaratatsuenak	5. a) astetan b) egunetan c) ordutan	6. a) irakurtzen duela b) irakurtzen duelako c) irakurtzen duenean	7. a) iritziak b) jatorriak c) zaletasunak

0	1	2	3	4	5	6	7
b							

ENTZUNAREN ULERMENA (20 puntu)

1. ARIKETA: 7 puntu

- Mutrikuko festa eta ohiturei buruzko informazioa entzungo duzu.
- Entzundakoaren arabera, **aukeratu esaldiak EGIA (E) ala GEZURRA (G) diren (1-7).**
- 0 esaldia adibidea da.



[A2-1.ariketa-Mutriku](#)

MUTRIKU FESTAK ETA USADIOAK

(www.debarrenaturismo.com)

		E	G
0	Euskal Herrian festak ospatzeko tripa bete behar da.	X	
1	<i>Berdel Eguna</i> , berdela promozionatzeko ospatzen dute.		
2	Ospakizunean, berdela modu bakarrean prestatuko dute.		
3	Uztailean ospatzen dira Mutrikuko jai nagusiak.		
4	Danborrada, sokamuturra eta pilota dira ikuskizun garrantzitsuenak.		
5	Uretako motorren lehiaketa irailean egiten dute.		
6	<i>Kalbaixuak</i> irailaren azken egunean ospatzen dituzte.		
7	<i>Kalbaixo</i> egunean, meza amaitu ondoren izaten da festa.		

0	1	2	3	4	5	6	7
E							

2. ARIKETA: 7 puntu

- Asier Gabikagogeaskoak egindako bidaia entzungo duzu.
- Entzundakoaren arabera **aukeratu erantzun zuzena (a, b edo c)**.
- 0 galdera adibidea da.



[A2-2.ariketa-Urte eta erdi Asian barrena](#)

URTE ETA ERDI ASIAN BARRENA

(Euskadi Irratia, 2012-09-21)

0. Zenbat iraun du Asierren bidaiak?

- a) ~~18 hilabete.~~
- b) 19 hilabete.
- c) Hilabetea.

1. Zenbat herrialdetan ibili da?

- a) 18 herrialdetan.
- b) 25 herrialdetan.
- c) 34 herrialdetan.

2. Zer gustatzen zaio Asierri?

- a) Herriak kolekzionatzea.
- b) Kultura desberdinak ezagutzea.
- c) Kulturak kolekzionatzea.

3. Nola ibili da bidaian?

- a) Bizikletaz bakarrik.
- b) Ibilgailu askotan ibili da.
- c) Trenez eta autobusez gehienetan.

4. Zein zen bere lehenengo helburua?

- a) Bidaia osoa trenez egitea.
- b) Elefantean ibiltzea.
- c) Hegaldirik ez hartzea.

5. Nola abiatu zen Bilbotik?

- a) Autobusez.
- b) Hegazkinez.
- c) Trenez.

6. Norekin bidaiatu du?

- a) Inorekin ez.
- b) Lagun askorekin.

c) Lagun batzuekin.

7. Noiz hasi zen bidaiari pentsatzen?

- a) Duela gutxi.
- b) Duela lau urte.
- c) Duela zazpi urte.

0	1	2	3	4	5	6	7
a							

EAEKO HE OAK-EE0011 CAPV

3. ARIKETA: 6 puntu

- *Bi berri labur entzungo dituzu.*
- *Entzundakoaren arabera, **erantzun itzazu labur-labur ondoko galderak.***
- *0 galdera adibidea da.*



[A2-3.ariketa-Taloak egiteko ikastaroa](#)

TALOK EGITEKO IKASTAROA ETA LIBURU BATEN AURKEZPENA

(Segura Irratia, 2012)

1. TALO MEXIKARRAK ETA MAROKOARRAK EGITEKO IKASTAROA

0. Noiz izango da ikastaroa? **Maiatzaren 8an**

1. Zein herritan egingo da ikastaroa? _____
2. Zer ordutatik zer ordutara izango da? _____-etatik _____-etara
3. Noiz arte eman daiteke izena? _____ baino lehen.
4. Izena emateko bi telefono zenbaki ematen dituzte. Jaso ezazu horietako bat.
943 _____

2. "ELUR-ANTZARA" LIBURUAREN AURKEZPENA

5. Non izango da liburuaren aurkezpena? _____
6. Zer ordutan? _____

IDATZIZKO ADIERAZPENA (20 puntu)

1. ARIKETA: IDAZLAN LABURRA

IRAGARKIA: “AUTOA KONPARTITU NAHI DUT” (40 hitz / 5 puntu)

Egunero beste herri batera joan behar duzu lanera eta, gastuak gutxitzeko, autoa konpartitzea erabaki duzu. Idatzi iragarkia *autoakonpartitu.com* helbide elektronikora bidaltzeko. Kontatu:

- Nondik nora joaten zaren.
- Nolako ordutegia duzun.
- Nola ordaindu gastuak.
- Zurekin harremanetan jartzeko modua.

2. ARIKETA: IDAZLAN LUZEA

ESKUTITZA (110 hitz / 15 puntu)

Uztaila familia euskaldun batekin pasatu duzu euskara ikasten. Zure lagun batek irailean joan nahi du eta hauxe jakin nahi du:

- Non dagoen baserri hori.
- Nolako den familia.
- Zer egin duzun egunero.
- Gertatu zaizun anekdotaren bat.

Lagunari gutuna idatzi eta kontatu zure esperientzia.

AHOZKO ADIERAZPENA (20 puntu)

1. ARIKETA: AURKEZPENA (4 puntu)

Azterketariak aurkeztu egingo dira eta aztertzaileren galderak erantzungo dituzte.

2. ARIKETA: GALDERAK ETA ERANTZUNAK (8 puntu)

Fitxa batean emandako informazioan oinarrituta, A azterketariak 3 galdera egingo dizkio B azterketariari eta B azterketariak erantzun beharko du. Gero fitxa berriak emanda, B azterketariak galderak egingo ditu eta A azterketariak erantzun.

Adibidea: A fitxa (informazioa)

Hemen alokatzen den pisu bati buruzko informazioa duzu. Zure kideak bat akolatu nahi du eta hiru galdera egingo dizkizu. **Erantzun galderei.**



PISUA ALOKATZEN DA

Bilboko Alde zaharrea

Berritua eta oso argitsua

2 logela / 3. pisua / igogailurik ez

800€ hilabetean

Deitu: Asun 94 462 12 62

Adibidea: B fitxa (galderak)

Pisu bat alokatu nahi duzu. Zure kideak pisu bati buruzko informazioa dauka. **Egin hiru galdera** ondoko aspektuei buruz:

PISUA ALOKATZEN DA

- Auzoa / Kalea
- Nolakoa
- Gela-kopurua
- Prezioa
- Informazioa eskatzeko telefono-zenbakia



EAEKO HE Oak-EL

3. ARIKETA: ELKARRIZKETA (8 puntu)

“NON AFALDUKO DUGU?”

A IKASLEA

- Elkarrekin joango zarete afaltzera.
- Ez dakizue nora joan: txinatar batera edo pintxoak jatera.
- Defendatu zure proposamena eta ados jartzen saiatu.

TXINATARRA: ALDE ONAK

- Oso merkea.
- Zerbitzariak, atseginak.
- Zentrotik hurbil.

PINTXOAK: ALDE TXARRAK

- Garestia.
- Esertzeko lekurik, ez.
- Tabernak, zaratatsuak.

B IKASLEA

- Elkarrekin joango zarete afaltzera.
- Ez dakizue nora joan: txinatar batera edo pintxoak jatera.
- Defendatu zure proposamena eta ados jartzen saiatu.

TXINATARRA: ALDE TXARRAK

- Janari eskasa.
- Giro hotza.
- Autoa aparkatzea, arazoa.

PINTXOAK: ALDE ONAK

- Kalitatezko janaria.
- Zerbitzariak, azkarrak.
- Giroa, alaia.